

FENAVIN 2025

BERTARATZEKO DEIALDIA

- **Data:** 2025eko maiatzak 6-8
- **Tokia:** Ciudad Realeko Azoka Pabiloia
- **Maiztasuna:** bi urtez behingo
- **Sektorea:** mahastizaintza eta ardogintzako industriako profesionalak
- **Izena emateko epea:** 2024ko urriak 30
- **Azokaren webgunea:** www.fenavin.com

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, elikaduraren euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **FENAVIN 2025** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du HAZiren bitartez. Azoka, Ciudad Realen ospatuko da 2025ko maiatzaren 6tik 8ra arte.

AZOKAREN IZAERA

FENAVIN mahastizaintza- eta ardogintza-industriako profesionalei zuzenduta dago.

Azoka interesgarria da mota guztietako upeltegientzat, bai inportatzaile bat atzerrian dutenentzat, bai kontakturik ez dutenentzat, bisitari **gehienak nazioartekoak** baitira.

FENAVIN publiko profesional bati zuzenduta dago soilik, sektoreko erosle profesional ugari erakartzen ditu.

Gainera, azokak aukera ematen du atzerriko erosleekin topaketak eskatzeko eta, horrela, azokako hiru egunetan bileren agenda bat ixteko; "**Erosleekin kontaktatu**" programaren bidez.

AZOKAREN IZAERA

FENAVIN DATUAK

**Bisitariak
2023an:**

**117.844
profesional**

Ordutegia:

**05/06-05/07
9etatik 19ra
05/08
9etatik 16ra**

**Erakusleak
2023an:**

**1.921
upeltegi**

**Azokaren
webgunea:**

www.fenavin.com

EUSKADI BASQUE COUNTRY STANDa

Eusko Jaurlaritzak 2023ko **FENAVIN 2025** gunearen antzeko gune bat izango du **Euskadiko mahastizaintza eta ardogintza industriako** enpresentzat, **stand partekatuarekin** parte hartu nahi dutenentzat.

Euskadiren ordezkariak gehieneko enpresa-kopuru baterako gaitasuna izango du. Interesa duten enpresa gehiago egonez gero, hautaketa bat egingo da izena emateko hurrenkeraren arabera (dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira). Inskripzio-data, ondorio guztietarako, inskripzioaren ordainketa egiten den eguna izango da.

Eusko Jaurlaritzak azoka hori antolatu ahal izateko, gutxieneko parte-hartzaile kopuru bat lortu beharko da.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Egoitza **Euskadin** duten eta Eusko Jaurlaritzaren Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza saileko **Elikagaien Industrien Erregistroan** inskribatuta dauden **enpresa ekoizleak** baino ezingo dute parte hartu ekitaldi honetan.

AZOKAREN AURRETIK

- Enpresak ordezkarri bat bidaltzeko konpromisoa hartuko du eta kuota ordainduko du. Euskadiren pabiloian egongo dela jakinarazi ondoren, ezin izango da baja eman. Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.
- Enpresek nahitaez agertu beharko dute ekitaldia hasiko den egunaren bezperan, adierazitako orduan, merkantziajasetzeko eta beren standen dekorazioa azkentzeko, ekitaldia hasi baino lehen, nahikoa aurrerapenarekin.
- Enpresa azokaren ordutegi ofizialean standetik joango balitz arrazoitutako aparteko arrazoirik gabe, azokaren hurrengo edizioan galdu egingo lituzke lehentasunezko eskubideak (izena emateko hurrenkera, etab...). Haren eskariari izena emateko eta ordainketa egiteko datetan egin diren gainerako eskariak aintzat hartu ostean baino ez litzaioke erantzungo.
- Halaber, enpresa batek edo hainbatek standa uztearen ondorioz Eusko Jaurlaritzak, bertaratze taldekatuaren antolatzailea izanik, azokaren antolakuntzaren aldetik zehapen ekonomikoren bat jasoko balu, zehapen hori berehala jasanaraziko litzaioke arau haustea eragin duen enpresari edo enpresei.

AZOKAN ZEHAR

- Erakusten diren produktuek soilik Euskadin ekoizitakoak izan beharko dute. Inola ere ezin izango da ez aipatu, ez aurkeztu, beste autonomia erkidego batzuetako produkturik.
- Bere standean egon azokako egun guztietan eta irekiera-ordutegi osoan.
- Azoka amaitzean, enpresak egoki jaso beharko ditu bere produktuak, eta standeko elementuak jaso zituen egoera berean bueltatu beharko ditu.

AZOKAREN ONDOREN

- Ebaluazio-inkesta egin; antolakuntzaren jarraibideen arabera bete eta entregatu beharko dute.

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

PARTE HARTZEKO KOSTUA

Fenavin 2025 azokan parte hartzeak hurrengo kostua izango du:

- **Partekatutako stand-a:**
1.050 € + BEZ % 21 = 1.270,5 €

PARTE HARTZEKO EREDUA

2025ko edizioan, Eusko Jaurlaritzak Fenavin azokan gune bat izango du kalitatezko ardoak (JD duten ardoak), JD duen txakolina eta/edo parte hartu nahi duten beste edari alkoholodun batzuk ekoizten dituzten euskal elikagaien industriako enpresei lekua egiteko.

- **PARTEKATUTAKO stand eredua**
Enpresen arteko bereizgailurik gabeko eremu komuna



EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

IZENA EMATEKO EPEA: 2024KO URRIAREN 30

Plaza kopurua mugatua da. Gogorazten dugu eskatutako dokumentazio guztia agro@camarabilbao.com helbidera bidaltzen duenean bakarrik joko dela enpresa izena emanda dagoela.

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da eta lehentasuna emango zaie Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari atxikita dauden enpresei.

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Formularioan eskatzen den informaziotik, datuak zehazki transkribatuko dira zokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

IZENA EMATEAK

KUOTAREN ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia: Laboral Kutxako **ES49 3035-0179-61-1791069900** HAZI Fundazioaren izenean.

Laboral Kutxako BIC : CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena + FENAVIN 2025"

HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak izena ematearen kuotaren zenbateko totalaren faktura bidaliko dizue.

ZURE ENPRESAK ZERGA-BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK
EGUNEAN DITUELA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

GARRANTZITSUA

Enpresa parte-hartzaileak hautatzeko, izena emate-agiri guztiak (formularioa eta ordainagiria) jaso diren hurrenkerari jarraituko zaio. Izena emate-data, ondorio guztietarako, inskripzioaren ordainketa egin den eguna izango da, eta lehentasuna emango zaie Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari atxikita dauden enpresei.

Eskatutako izena emateko formularioa betetzeak EZ DAKAR enpresak Euskadiren pabiloian parte hartzea; izen-ematea onartu dela jakinaraziko da.

ENPRESAK FAKTURA JASO, HAU DA, EUSKADIREN STANDEAN SARTZEAREN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN PARTE-HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresa erakusketariak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halaberrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, HAZIren bitartez, zerbitzu hauek eskainiko ditu:

1 Espazioa kontratatzea

Parte hartuko da partekatutako standetan banatuko den sustapen-espazio batekin.

2 Stand-aren dekorazioa

Stand-aren dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira Euskal Herriko standeko erakustoki guztientzat, eta honako elementu hauek izango dituzte:

- Stand partekatua honako hauek osatuko dute: mostradorea eta aulkitxoa, enpresa bakoitzeko errotulua, bilera-mahaiak, hozkailuak dituen biltegia eta komunitate-erabilerako harraska; eta konexio elektrikoa.

Oharra: oinarrizko altzarien, elementu elektrikoen edo stand-en behar elektrikoen edozein aldaketa, horiek handitzea edo aldatzea badakar, zuzenean kontratatuko du erakusketari bakoitzak, eta dekoratzaileak zuzenean fakturatuko duen kostu erantsia izango du.

3 Stand-aren mantentze-lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura...)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da pabiloiaren garbiketa- eta elektrizitate-zerbitzuez eta, oro har, mantentze-lanez. Hala ere, enpresa bakoitza arduratuko da bere esposizio-eremua baldintza onenetan mantentzeaz.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

4

Merkantziaren garraioa

Eusko Jurlaritzak salgaiaren bidalketa taldekatua antolatuko du, garraiolariak adierazitako puntu komuniketiko standean entregatu arte.

Salgaia bidaltzearen kostua garraiolariak fakturatuko du, eta enpresa erakusketariaren kontura izango da oso-osorik. Dagokionean, enpresa garraiolari esleipendunaren datuak emango zaizkie.

Eusko Jurlaritzak ez du bere gain hartzen bidalketa taldekatuaren bazterreko gatza jasotzea eta salgaien segurtasuna bermatzea.

Enpresek merkantzia jasotzen duten bitartean bertan egon beharko dute, adierazten zaien orduan, bai eta beren standak apaintzen amaitzeko ere, lehiaketa inauguratu baino lehen. Adierazitako orduan merkantzia jasotzera joaten ez diren enpresak zigortu ahal izango dira.

6

Kopa eta listu ontzien zerbitzua

Kopen alokairua erakusketariaren kontura izango da. Hala ere, Saila enpresen esanetara dago zerbitzu horren kontratazioa koordinatzeko.

7

Azokaren katalogo ofizialean agertzea

Eusko Jurlaritzak beharrezko izapideak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusketari guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean inskribatuta ager daitezen eta ekitaldiko erakusketari guztiak erregistratuta ager daitezen (izena emateko formularioan jasotako datuak agertuko dira). Gainera, gure upeltegiak azokan izango duten presentzia ahalik eta errentagarrien bihurtzeko beharrezkoak diren kudeaketak egingo ditu, eta azokaren sustapen-aukera guztien berri emango du unean-unean.